



Maite González
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Iñigo Ibareguren 3

Sarrera 3

Triangelu irristakorra

• Kokapena 4

• Gaia 4

• Argumentua 4

• Gertakizun nagusiak 5

• Egituraketa 6

• Pertsonaiak 7

• Baliabideak 8

• Iritzia 9

Bibliografia 10

Webgrafia 10

Iñigo Ibareguren

Iñigo Ibareguren 1979an Azpeitian jaiotako euskal idazle gaztea da.

Hamazazpi urte ingururekin hasi zen irakurtzen, eta urte batzuetan zenbait liburu dezente irakurri zituen, idazteko gogoia piztu ziotenak. Beraz, idazteari ekin zion eta gustuko zuela deskubritu zuen. *Malanjeko taupaden atzetik* eta *Iraganaren pisua* nobelak idatzi ditu, eta baita Beethoven izeneko biografia ere. Tarteka, Uztarriako webgunean iritzi artikulua ere idatzitakoa da. *Triangelu Irristakorra* bere laugarren eta momentuz azken liburua da.



Idazten jarraitzeko asmoa du. Izan ere, batzuetan sufritzen dela jakin arren, gustuko du azkenean berak idatzitako zerbaitek forma hartzen duela sentitzea eta ikustea. Gainera, pozten da jendeak haren liburuak gustuko izatea, helburu horrekin idazten baitu Ibareguren.

Sarrera

Triangelu Irristakorra Iñigo Ibareguren idatzitako eleberria da. 2013an argitaratu zen, eta oraingoz plazaratutako edizio bakarra da. Liburuan kontatzen diren hiru istorioak gaur egungo Euskal herriko hiri batean kokatuta daude. Berrogei urte inguruko hiru pertsonaia nagusi agertzen dira liburuan: Kepa, Alazne eta Beñat. Kepa ezkon bizitza gorabeheratsua darama eta bi alaba ditu; Alaznek ez du bikotekiderik, eta Beñat bakarrik bizi da, lanean murgildua. Hiruren bizitzen noranzkoak aldatu egingo dira, ordea, euren artean eta ingurukoekin gurutzatu ostean. Liburuaren hasieran beraien bizitza norabide bakar batean doala badirudi ere, gero gauzak aldatuz doaz pixkanaka.

Istoria lehenengo pertsonaia kontatzen da, eta horrela, pertsonaia sentimenduak eta pentsamenduak argi aurkezten zaizkigu. Baina lehenengo pertsonaia kontalari hori aldatuz joango da kapitulu kapitulu, hiru pertsonaia nagusiei garrantzi bera emateko helburuarekin. Horrek hiru protagonistak ondo ezagutzeko aukera eskaintzen digu. Horretarako, egileak hausnarketa sakonak egiten ditu bizitzari buruz, pertsonaia bakoitza kezkatzen dituen gaiak agerian utziz. Aldi berean, irakurleari pentsaraztea lortzen du Ibareguren.

Kokapena

Arestian esan bezala, istorio hau Euskal Herriko hiri batean gertatzen da. Izan ere, hiria non dagoen azaltzen ez den arren, eta bere izena aipatzen ez den arren, argi ikusten da euskara hitz egiten den hiri bat dela. Hiru pertsonai nagusiak, eta hauek inguratzen dituzten gainerako pertsonai gehienak, euskaraz hitz egiten dute eguneroko bizitzan. Hala ere, badaude bi pertsonai, Sandra eta Mariela, atzerritarrak direnak eta euskaraz hitz egiten ez dakitenak. Hauek, gaztelaniaz aritzen dira, eta ondorioz, gainerako pertsonaiak ere, beraiekin hitz egiten dutenean. Hori dela eta, batzuetan, batez ere liburuaren amaieran (Sandra eta Mariela gehiago agertzen direnean), gaztelaniaz idatzitako esaldiak agertzen dira. Istorioaren une batean, Marielak hauxe esaten du: *“Oso ondo iruditzen zait nor bere hizkuntzan aritzea, eta gainera hizkuntza txikia izanik zaindu egin behar”* (191). Euskara hizkuntzari erreferentzia egiten dio esaldi horretan, eta gaur egungo euskararen egoeraren islapena egiten du: Euskaraz hitz egitea baimenduta dago, baina hizkuntza txikia denez eta hiztun gutxi dituenek, euskaldunok erabili eta zaindu behar dugu.

Garaiari dagokionez, istorioa gaur egun kokatuta dagoela esan dut. Egungo gizartearen ezaugarriak eta funtzionamendua agertzen dira liburuan, hala nola, kotxeen erabilera etengabea, mugikorren eta ordenagailuen presentzia, telefonia zerbitzuen gatazka, Interneten erabilera (YouTube)... Gainera, Iñigo Ibarpurenek 2013an idatzi zuen liburua, eta istorioa urte horretako gizartean gertatzea nahi izan zuen, liburuari gaurkotasuna emateko helburuz.

Pertsonaia nagusiak, bi gizon eta emakume bat dira: Kepa, Alazne eta Beñat. Gero, beraien inguruan beste pertsonaia batzuk agertzen doaz, haien familia eta lagunak, hain zuzen ere. Hasieran, hiru pertsonaiak elkarren artean ezezagunak izango dira, eta denbora pasa ahala, ezagutuz joango dira, haien bizitzek norabide bakar bat hartuko dutela irudituko duen puntura arte.

Gaia

Gainerakoekin ditugun harremanak eta horiek eragiten dizkiguten sentimenduak. Hau da, bikote-, heldu-haur eta familia-harremanak, eta horien ondorioz sentitzen dugun maitasuna, bakardadea...

Argumentua

Kepa, Alazne eta Beñat, adin bertsuko hiru ezezagun dira eta euren bizitzak nahasi egiten dira. Hiruren beldurrak, ilusioak eta esperantzak korapilatzen doaz, elkar ezagutzen duten heinean. Kepa bere bi alabatxoek ama den bikotekidearekin gauzak aldatu direla eta maitasuna desagertu dela ohartuko da. Alaznek, bere burua galdua ikusten zuen emakumea, ilusioa berpiztuko dioten bi gizon ezagutuko ditu, Kepa eta Beñat. Beñatek, berriz, bizitza bakarti eta lasaia hautsiko dion ezustekoa hartuko du, bere arrebak tratatu txarrak jasaten dituela jakiterakoan. Egoera horietan, hirurek borroka egin beharko dute beren bizitzen norabidea aurkitzeko eta bizitzari ase sentiaraziko dituen zentsua emateko.

Gertakizun nagusiak

1. Hiru protagonistek bizitza normala daramate. Kepa bere emazte Maiterekin eta bere bi alaba txikiekin egoten da lanetik itzultzean. Alazne ile-apaindegian egun osoa lanean eman ondoren, etxera itzultzen da atsedean hartzeko. Beñat egunero joaten da aspertuta daukan telefonia zerbitzura lan egitera.
2. Kepa deseroso sentitzen hasiko da bere emaztearekin. Alaznek aspertuta sumatzen hasiko du bere burua. Beñat, berriz, aspaldian ikusten ez zuen arrebari (Aitziberri) bisita egitera joango zaio, baita bere lau ilobatxoei ere, eta Aitziberren senarra gustuko ez duela ohartuko da.
3. Maitek istripu bat izango du, eta egun berean Alaznek aita medikuarenera eramane beharko du. Bertan ezagutuko dira elkar .
4. Beñat Aitziberren etxera bisita sorpresa bat egitera doa, eta egongelan argia egon arren, ez dio inork atea irekiko. Beraz, kezkatuta itzuliko da etxera. Aitarekin hitz egitean, Aitziber bere senarrak jo zuela esango dio.
5. Beñatek Aitziberrekin hitz egingo du eta gehiagotan jipoitu diola aitortzen dionean, salaketa ipini eta umeekin etxetik alde egin behar duela erabakiko dute. Harrera-etxe batera joango dira.
6. Kepa Aitziberren ile-apaindegira bisita egitera joaten da, eta Aitziberrek berarekin oheratu nahi duela aitortuko dio. Kepak pentsatuko duela erantzungo dio, eta astebete barru elkartzeko geratuko dira. Azkenean, honek baiezkota eman eta elkarrekin oheratuko dira.
7. Kepak Maiteri egindakoa aitortu eta honek gizon batekin bi urtez harremanetan egon dela esango dio. Banatzea erabakiko dute orduan.

8. Alazne eta Beñatek diskoteka batean ezagutzen dute elkar, eta elkarrekin ondo konpontzen direla ikusita, Beñaten etxera joango dira lasaiago egoteko asmoz. Honek bere arrebarekin gertatutakoa kontatu eta negarrez hasiko da.
9. Aitziberren senarra aurkitzen ez duten bitartean, emakumea eta umeak harrera-etxean gelditu beharko dira. Baina oso harrera ona egiten diete, eta bizitzeko leku hobekak existitu arren, ez dira guztiz txarto egongo.
10. Beñatek, gau batean, etxera sartzean buruan kolpe handi bat jaso eta konorte gabe geldituko da. Ospitalera eramango dute eta atsedean hartuz gero sendatuko dela esango diote. Aitziberren senarra izan dela dakite, inolako dudarik gabe.
11. Alazneri ezagutu dituen bi gizonen artean aukeratzea kostatuko bazaio ere, azkenean Kepa nahiago duela erabakiko du. Beraz, berarekin kontaktuan jarri eta berriro elkarrekin egoteko geratuko dira.
12. Beñatek harrera-etxean bizi den emakume bat ezagutuko du, eta berehala sentituko dute elkarrekiko erakarpena. Elkarrekin amaituko dute, oso zoriontsu.
13. Alaznek Keparekin egon nahi zuela uste zuen, baina berriz berarekin egotean, bere burua aintzat hartu behar duela eta ez duela bakarrik egoteko beldurrik izan behar konturatuko da. Amaitu egin dutela esango dio.
14. Kepak, azkenean, garbi izango du nortzuk diren bere bizitzako neskek: bere bi alabak. Beti haiek behar dutenerako egongo dela ziurtatzen dio bere buruari.
15. Aitziberren senarra aurkitu eta atxilotuko dute, eta emakumeari eta umei etxera itzultzeko baimena emango diete.

Egituraketa

Liburu honen egituraketa lineala da. Hau da, istorio guztian zehar egitura kronologikoa erabiltzen da, gertakizunak gertatzen diren ordenan kontatzen dira. Hiru pertsonen istorioak aldi berean gertatzen direnez, baten eta besten narrazioak tartekatuz joaten dira. Horrela, nahiz eta pertsona baten gertakizunak kontatzen egon, besteentzat denbora eteten ez dela ikus daiteke.

Aipatu beharra dago liburua hiru zatitan banatuta dagoela, istorioaren banaketa oso logikoa eginez: lehenengoan, *Triangeluaren ertzak* deitutakoan, hiru protagonistak aurkezten dira, bakoitza bere aldetik; bigarrenean, *Bidegurutzera*, hiru ezezagunen bizitzak nola nahasten diren azaltzen da; eta hirugarrenean, *Nork bere bidea*, nola

aldentzen diren kontaktzen da. Era berean, hiru zati hauek hainbat kapitulutan banaturik daude, denak zenbaki baten bidez bereizitakoak.

Pertsonaiak

Triangelu irristakorra izenburua metafora bat da. Izenburuari erreparatuz asmatu daitekeen bezala, hiru dira liburuaren protagonistak, eta beraien inguruko arazo eta gorabeherak agertzen dira. Jarraian hiru protagonistak eta aipamen berezia merezi duen beste pertsonai bat agertzen dira.

Kepa. Obrako protagonista bat dugu, batzuetan narratzailea dena. Berrogei urte inguruko gizona da. Ile beltza dauka eta bi edo hiru eguneko bizarra uzteko ohitura. Berarekin hitz egitea erreza da, samurra da eta entzuten daki. Bi alabatxo txiki ditu, asko maite dituenak, baita emazte bat ere, Maite deitzen dena. Maite istorioaren hasieran asko maite duela dirudien arren, denborarekin gero eta urrunago sentitzen duela ohartzen da. Liburuaren amaiera aldera, estimatzen duela, baina dagoeneko ez duela maite konturatzen da. Liburuan garratzi handiko pertsonaia da, eta batez ere, alabak asko maite dituen aita baten irudia islatzen du.

Alazne. Liburuaren beste protagonista bat dugu. Hogeita hemeretzi urteko emakumea da. Begi txiki sakonak, aho handi, ezpain meheak eta kokots fin eta estua du. Ile kiribildua dauka, kaoba kolorekoa. Izter sendoak ditu, luzeak eta forma ederrekoak. Gerri estuak ditu, eta nahiko argala da. Ile-apaindegi batean lan egiten du, asko gustatzen ez zaion arren. Bost urte daramatza erlazio serio bat izan gabe. Badaki ez dela emakume erraza, oso pertsonalitate markatua daukala, eta egoskorra, perfekzionista eta urduri samarra dela. Bizitzeak beldur eta errespetu moduko bat sortzen dio. Hala ere, istorioan zehar bere eboluzioa ikus dezakegu. Hasieran, oso emakume dudatsua ezagutuko dugu, bakardadeari beldur diona. Baina narrazioan zehar Kepa eta Beñat ezagutuko ditu, bere bizitza ikusteko era aldatuko diotenak. Amaieran, bere burua gehiago errespetatu behar duela konturatzen da, eta bere izaeran aldaketa bat nabarituko dugu: ez zaio axola izango bakarrik egotea, ez gehiago.

Beñat. Hirugarren protagonista dugu. Berrogei urte inguruko gizona da. Telefonía enpresa pribatu batean lan egiten du, eta hamaika urte inguru daramatza lanbide horretan. Ilehoria da, eta oso ondo moztuta dauka. Oso fin janzen da, baita oso dotore ibili ere. Pertsonaia horrek ere eboluzionatu egiten du istorioan zehar. Hasieran ez ditu umeak gustuko eta bere arreba Aitziberrekin ez du erlazio onik. Baina zenbait gertakizun bera laguntzera behartzen dute. Azkenean lotura berezi bat sortzen da bien artean eta, gainera, estimu berezia hartzen die bere ilobei. Beñatek neba on baten irudia sinbolizatzen du, eta oso pertsona ona dela agerian geratzen da.

Aitziber. Beñaten arreba bakarra eta nagusia da. Lau seme-alaba ditu. Karakter gogorra du, eta diskutitzea gustuko izan du beti. Bere senarra, Jon, jipoitu egiten zuen. Hori dela eta, oso pertsonaia ahula izango balitz bezala agertzen da liburuan, laguntza behar duena. Baina egia esan, emakume indartsua da, gauza guztien gainera bere seme-alabentzat onena nahi duena. Gaur egungo gizartean uste dugun baino emakume gehiago sufritzen dute Aitziberren egoera berdinean egoteagatik. Pertsonai honen bitartez, hori salatu egin nahi du Iñigo Ibarenek.

Baliabideak

Ulertzen liburu erraza da, pertsona gazteek zein nagusiagoek irakurtzeko modukoa. Lexikoa ez da bereziki zaila, ezta erabiltzen diren egiturak ere.

Idazleak pertsonen deskribapen anitz egiten ditu. Fisikoki zein izaeraren aldetik zehaztasun askorekin deskribatzen ditu, horrela, irakurleari nolakoak diren imajinatzea erraztuz. Gainera, lehen pertsonako narratzailea denez, deskribapenak protagonisten ahotan egiten dira, eta beraz, subjektiboak dira. Horri esker, pertsonai bakoitza bere burua nola ikusten duen eta besteak bera nola ikusten duten jakin dezakegu.

Elkarrizketa ugari daude, istorioa pertsonen arteko erlazioei buruzkoa delako. Horiei esker, pertsonaiak haien artean zelako harremanak dituzten asma dezakegu.

Idazleak erabiltzen duen kontatzeko estiloa nahiko sinplea da eta erabiltzen den hizkuntza egokituta dago hitz egiten duen pertsonaiaren arabera. Adibidez, umeez hitz egiten dutenean edo helduek umeez hitz egiten dutenean euskara sinplea eta gozoa erabiltzen da: “-Aitatxo eta amatxo haserretuta ibili dira aspaldian eta hemendik aurrera ez dugu elkarrekin lorik egingo” (178). Beste batzuetan gaztelaniaz daude zenbait elkarrizketa zatiak, elkarrizketan parte hartzen duten pertsonaiaren batek euskaraz hitz egiten ez dakielako: “-No me hagas llorar, mujer - bota diot...” (207). Barne-elkarrizketak nabariak dira liburuan, lehen pertsonako narratzailea dagoenez, pertsonaiek euren buruarekin izaten dituzten elkarrizketak agertzen direlako: “*Eta niri? Zergatik ez zaizkit niri gauzak ondo ateratzen? Badaramatzat bost urte erlazio serio bat izan gabe ...*” (22). Sarritan IKArek erabilera agertzen da, batez ere, Beñaten aita bere semearekin aritzen denean: “-Bazekiat, baina berak ezetz zio. Ez dela gehiagotan gertatu.” (84).

Narratzaileek lehenengo pertsonan kontatzen dute istorioa, eta lehenaldian aritzen dira obraren amaierara arte. Hiru protagonista daudenez, txandakatuz egiten dute lehen pertsonako narratzailearen papera. Horregatik, pertsonaien sentimenduak eta burutapenak nabariak dira narrazioan.

Iritzia

Aztergai izan dugun obrak ez du oraindik ospe handirik, atera berria delako. Baina denborarekin, famatuagoa bihurtuko delakoan nago. Izan ere, irakurtzen erraza da, originala eta entretenigarria. Gainera, irakurlearen interesa pizten duten zenbait gai azaltzen dira, istorioan murgiltzen dutenak, hala nola, bikote harremanak, heldu-haur harremanak, familia, infidelitatea, tratu txarrak, inmigrazioa, maitasuna, bakardadea, norbera onartzea... Gaurkotasuna duten gaiak dira.

Hiru ezezagunen bizitzen nahasketa eta horien arazoak biziko ditugu, amaiera kurioso eta tupusteko batekin. Liburu honekin, idazleak pertsonok ditugun zenbait arazo eta dilema sozial jarri nahi ditu agerian, irakurlea haiei buruz pentsatu eta erreflexionatu dezan.

Irakurleak protagonistekin identifikatuko dira gehienetan. Liburuan pertsonaiak bidegurutze batera heltzen dira, eta orduan, nork zer egin nahi duen erabaki behar du. Gure bizitzako errealitatean ere, denok hartu behar izaten ditugu bidegurutze horietako bat, eta erabakiak hartu beharrean aurkitzen gara, onerako edo txarrerako. Batzuetan oso zaila izaten da aukera onena zein den igartzea. Liburuko protagonistei berdin gertatzen zaie. Arazoak sortzen zaizkie eta konpondu egin nahi dituzte, gutako edonork geure bizitzetan bezala. Horregatik, erraza egiten zaigu pertsonaien azalean sartzea eta azkenean, estimu modukoa hartzen diegu.

Horrez gain, seguru badaudela Alazne edo Aitziberrekin identifikatuko diren emakumeak ere. Askori beldurra ematen digu bakardadeak, 40 urtera iristea eta bakarrik egotea, Alazne bezala, gaizki ikusita bezala baitago gizartean. Hori pentsatzen duten pertsonentzat liburua irakurtzea komenigarria dela uste dut, oker daudela konturatu daitezten. Aitziberren egoera, aitzitik, guztiz bestelakoa da. Honek tratu txarrak jasotzen dituzten eta inori esaten ez dioten emakume horietakoa da. Arazo hori duten emakumeentzat ere liburua irakurtzea komenigarria izango litzateke, bakarrik ez daudela kontura daitezten eta egoerari irtenbidea ematea posiblea dela ikusi dezaten. Bi emakumeak, hasieran egoki jokatzeko ari ez baziren ere, liburua aurrera joan ahala, bide zuzenago baterantz bideratzen dute euren burua. Duten transformazio horrek, hain zuzen ere, emakume eredugarri bihurtzen ditu.

Mota askotariko eszenek osatzen dute istorioa, baina beharbada, aipamen berezia merezi dute haurrek parte hartzen duten eszenek, batez ere Kepak alabekin eta Beñatek ilobekin dituztenak. Hunkigarriak dira benetan. Egoera gogorak daude liburuko zenbait pasartetan, eta umeek sufrimenduaren erdian daude. Batzuetan, ez dituzte gertatzen ari diren egoerak ulertzen. Helduen portaerak arrotzak dira beraietzat, eta ondorioz nahastuta edo haserre daude. Argi ikusten da helduek egoera ahalik eta hoberen konpontzen saiatzen direla, baina batzuetan ez da erraza. Oso ondo irudikatzen ditu Iñigo Iburguren ek egoera hauek pertsonengan sorrarazten dituzten pena, haserre eta inpotentzia sentimenduak. Hala ere, une polit eta goxoak ere agertzen dira umeekin.

Liburuan pertsonen arteko harremanak dira indar gehien duten gaiak. Harreman hauek aldatuz doaz eta hortik atera daiteke, hain zuzen ere, liburuaren izenburuaren zentzua. Triangelu irristakorra: ezegonkorak diren hiru pertsonen arteko erlazioak.

Lehen esan bezala, ulertzen erreza den liburua da. Deskripzio ugari eta aberatsak dituen, baita sentimenduen adierazpen anitz ere, ez da zaila pertsonaiak inguratzen dituzten eta bizitzen dituzten egoerak imajinatzea. Horrela, erreza da pertsonaiei gauzak egitera bultzatzen dieten zergatiak ulertzea. Hala ere, bizitzako zenbait alderdi sakon jorratzen dira, heldutasun maila bat eskatzen dutenak. Hori dela eta, ez nioke 16 urtetik beherako edonori gomendatuko, liburua bere osotasunean ez lukeelako ulertuko.

Laburbilduz, liburu irakurterraza dela esango nuke, gustura eta jakin-minez irensten diren horietakoa. Gainera, istorioaren amaiera badakizula pentsatuko duzun arren, ezustekorik ez da faltako.

Bibliografia

Triangelu irristakorra, Iñigo Ibaruren. Gaumin.

Elhuyar hiztegia, Askoren artean. Elhuyar.

Webgrafia

<http://uztarria.com/komunitatea/inigo>

<http://www.diariovasco.com/v/20130622/cultura/inigo-ibargurenen-hirugarren-nobela>

<http://www.kulturklik.euskadi.net/lang/es/triangelu-irristakorra-ibarguren-inigo/>

<http://www.gaumin.com/denda/product>

<http://www.euskara.euskadi.net>

<http://www.berria.eus/paperekoa/1578/039/002/2013-06-22>

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=894>